

Banaketa eta komunikazio kanalak

- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

“Docline” berez internet bidezko zerbitzua eskaintzen duen enpresa edo elkarte da, beraz, bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena –webgune baten bitartez– da.

Webgunean nabigatzeko gailu elektroniko baten eskuragarritasuna nahikoa da, horri esker webgunea zailtasunik gabe aurkitu daiteke, bertan zerbitzuarekin erlazionatuta dauden kontu guztiak kudeatuko baitira, bezeroentzako arreta, hitzorduen erreserba... esate baterako.

Gailu elektroniko baten ezintasuna izatekotan, egoitza txikiak egongo dira probintzia bakoitzeko hiriburuetan. Hauek logela digitalizatu eta modernoak dira eta bezeroen zalantzak edo arazoak argitzeko gaitasuna dute. Arazoak fisikoak nahiz psikologiak izan daitezke, logelaren digitalizazioari esker bezeroaren irudia ikusi daitekelako, gutxi izan arren zerbitzu hura eskaintzen duten enpresak.

Osasunarekin zerikusia duen gai oro elektronikoki tratatuko da, mediku fisiko batera joateko ezintasuna edo itxaronaldi luzeak itzaroteko ezintasuna duten pertsonak berehala artatuak izan daitezen, beren etxeetatik atera beharrik gabe. Horrek edozein sendagai edo erosketa egin beharrez gero bezeroaren jabetzara bidaliko dela esan nahi du, hau etxetik atera ez dadin, nahikoa izango baita bere etxeko helbidea jakinik. Hori gutxi balitz, eskaria dena dela ere, produktua 24h igaro bezain laster jasoko du garraio-enpresei esker

